

Jatorrizko hizkuntza eta identitateen garapenerako aditu titulua

2011/05/03

Orain arte Lankik Truke programak antolatu ditu esperientziak trukatzeko herri eta hizkuntza desberdinen artean, eta ikastaro horietan dozenaka lagunek hartu dute parte, hizkuntza komunitate indigenetakoak. Bertan formazio programak eta sozializazio dinamikak landu izan dira. Aditu titulu honekin, berriz, kalitate jauzi bat eman nahi dute Lankik eta Garabidek.

Proiektu hau Debagoienez sortu da, Gipuzkoan, baina asmoa du Euskal Herrira zabaltzeko, euskal nortasuna baita elkarte hauen zutabetako bat. Horretarako, Garabidek lana egiten du euskararen aldeko zenbait elkarte, hedabide, udal, kooperatiba eta eragilerekin batera.

Ikasleen jatorria

Aditu titulu honetan parte hartzen ari dira Latinoamerikako 18 ikasle, herri indigenetakoak, honela banatuta:

- Lidia Marisol Cabrera (Bolivia) Aymara
- Martha Sandra Bustillos (Bolivia) Aymara
- Gualberto Vicente Quispe (Bolivia) Kitxua
- Mabel Arteaga (Bolivia) Aymara-gaztelania
- Leonor Zoraya Chavez (Bolivia) Kitxua-gaztelania
- Cesia Beatriz Chocori (Txile) Mapuzgun
- Rosa del Carmen Curihuentro (Txile) Mapuzgun
- Cesar Daniel Teleguario (Guatemala) Maya Kaqchikel
- José David Catu (Guatemala) Maya Kaqchikel
- Mario Marroquin (Guatemala) Maya Kaqchikel
- Pedro Oscar García (Guatemala) Maya Kaqchikel
- Luis Segundo Cesar Pilataxi Lechon (Ekuador) Kitxua
- Carlos Yamberla (Ekuador) Kitxua
- Luis Arturo Muyulema (Ekuador) Kitxua
- María Hilda Chaluisa (Ekuador) Kitxua
- Yazmin Yadira Novelo (Mexiko) Maya-gaztelania
- Aldegundo González Álvarez (Mexiko) Nahuatl
- Miriam Viviana González (Kolombia) Nasa Yuwe gaztelania

Bisitak

Ikastaroan barrena, aditu tituluko ikasleek hainbat bisita egingo dituzte: Arizmendi ikastola, Euskaltzaindia, hainbat hedabide eta argitaletxe, Mundumira, Araba euskaraz, Bertsozaleen elkarte eta Arantzazuko santutegia.

